

**EUSKAL HERRIA
HERRI TXIKIA - GIZON HAUNDIAK**

Historia luzeko Herri txiki honen seme-alaben artean asko ezagutzen ditugu benetan haundi izan eta agertzen direnak.

Aurten ere gure euskaldun bikain batzu joan zaizkigunez, konturatzen hasiak gara gure Herriak dituen eta izan dituen gizon-emakume distiratsuez.

Orain dela gutxi, egun handira arte agurtu ditugu P. Laffite, M. Lekuona, L. Mitxelena etab..., euskaldun, euskaltzale, euskaralogo, gizon bikainak.

Eredugarri dira haien bizitzak; adibidez, hor M. Lekuonarena, hainbat oztopo, nahigabe etab. jasan behar izan arren, beti leial, beti jator Euskal Herriaren zerbitzuan, fede-zerbitzuan, giza-zerbitzuan; bai, gizatasun apartaren eredu.

Gizon-emakume aipagarriak eta ereduak historian zehar eta gaur:
lancan, euskal lanean, fede-lancan, giza-lanean, bizitzako estualdian: hemen, aberrian, han mundu zabalean;
Euskal Herri hemen maitagarri; han, munduan ezaguna egiten euren hoberena eman dutenak.
Euskal Herria zentzun onez agurgarria; bizi-egarriz onargarri bihurtzen dutenak.

Izenak aipatzekotan, hor bat-batean bururatzen zaizkigun batzurenak: Marco Aurelio Prudencio († 405), Rodrigo Ximenez de Rada († 1247), Guillaume de Pierre Godin († 1336), Johannes de Anchieta († 1523), Francisco de Vitoria († 1588), Juan de Zumarraga († 1548), Iñigo de Loiola († 1556), Xabierreko Frantsisko († 1552), Bartolome de Carranza († 1576), Martin de Azpilcueta († 1586), Andres Urdaneta († 1568), Juan de Anchieta († 1588), Domingo Ruzola († 1630), Jean Duvergier de Hauranne et d'Echeverry («Saint Cyran», † 1643), Agustin de Cardaberaz († 1770), Michel Garicoits († 1863), Louis-Edouard Cestac († 1868), Tomas de Zumalakarregi († 1835), Charles Lavigerie († 1892), Sabino de Arana Goiri († 1903), Vicenta María López de Vicuña († 1890), Rafaela Ibarra († 1900), Margarita María López de Maturana († 1934), etab. etab; eta mende honetako beste sail luze bat eman genezake, santu, artista, politiko, ekonomista, euskaltzale eta abar.

Hauek dira gizarteari on eginez, herria osotuz eta aberastuz joan zaizkigunak. Gure aberriaren izena mundu zabalean maitagarri eta goraiagarri egin dutenak. Gizartea berrizatu, bizia bizigarriago egin eta Euskal Herria betirako historian sustraitu dutenak.

Honelako pertsonaia distiratsuak sortu dituen Herria ezin da agortu, ezin da desagertu! Ala bai?: Hauxe da egungo gizartearen baitan gori-gori dugun auzia.

Gaur egungo euskal gizartetik sortuko ote da gizon-emakume bikainik, gerorako benetako eredugarririk?

Oraingo etendura-giroak, politika-ideologiaz kutsaturiko gizarte honek sortu ahal izango ote du benetako gizon handirik bere zentzu zabalean, gizatasunaren zentzu bete-betean?

Adibidez, euskara jaso, erabili eta salbatzeko gauza ez den gizartean, politika-indar apurtzaile erlijio-sena bihurtzen ari den gizartean, politika-ideologia erlijio bihurtzen ari den gizartean; grina harrapatzailea nagusitzen ari den gizartean sortuko ote da

gizatasun bete-beteko gizon nahiz emakumerik?

Politikakeriak giza-zentzu orokorra ahultzen duenean, euskara zenbait egunetan ikurrin gisa erabiliz denbora gutxi barru bertan behera usteko... honelako gizarteak ekar ote dezake mundura gizon-emakume bikain miresgarririk..?

Aurten hil zaizkigun batzuren izenak gogoratuz (Lafitte, Lekuona, Mitxelena etab.), pentsatzekoa da horiek agertu zuten gizatasuna, barne-kemena nondik zetorren, eta indar horrekin zer egin duten..

Euskal Herria, historia luzeko Herri txikia. Baina haren seme-alaben fruitu-emankortasuna benetan handia: Hau da orain arteko historia, orain arteko gizarteak eman duen fruitua.